

Aniztasuna kudeatzeko
estrategia: kulturarteko
bizikidetzaren alde

2021-2024



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

**ikus
pegi** Immigrazioaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de Inmigración

1

AURKEZPENA

XXI. mendeko lehen urteetan agerian geratu da aurreko mendearen amaiera aldetik gertatzen ari zen zerbait: atzerritar jatorriko pertsona asko eta asko iritsi dira Euskal Herriko gizartera, batez ere egoera ekonomikoa hobetzeko, eta etorkizuneko bizi-proiektua izateko iritsitakoentzat bezala haien ondorengoentzat ere.

Arabian, aurreko mendearen amaiera aldean atzerritar jatorriko pertsona taldeak hartu genituen, Afrikako Iparraldetik etorritakoak nagusiki, baina inoiz ez mende honetan bezainbeste.

Mende honen lehen hamarkadan, immigrazioa finkatu eta dibertsifikatu egin da Arabian, munduko bazter guztietako pertsonak hartu ditugulako. Kontu estrukturala da jada. Arabian, atzerritar jatorriko 42.617 pertsona bizi dira (Ikuspegi, 2020ko urtarrilaren 1eko datuak), arabar guztien %12,8: haiekin eta haien ondorengoekin ikastetxeak, lana, unibertsitatea, aisialdiko lekuak, kultu-lekuak, udal-, foru- eta autonomia-zerbitzuak, zaletasunak eta abar partekatzen ditugu- Bai eta herrialde-proiektua ere, Euskadin geratzeko asmoa dutelako, eta Arabian bizi direnek gure lurraldean bizitzen eta beren bizi-, familia- eta gizarte-proiektua garatzen jarraitu nahi dutelako.

Eta hori mende honetako bi hamarkadetan baino ez Arabako gizartearen erresiliencia proban jarri duten bi krisi handiri aurre egin behar izan arren. 2008ko krisi ekonomikoari buruz ari gara, alde batetik, eta Covid-19aren pandemiak sortutako egungo osasun-krisiari buruz, bestetik. Lehenak 2014. urtea nahiko aurreratuta egon arte iraun zuen, eta bigarrena 2020. urtean hasi ondoren, ez dakigu ziur noiz arte iraungo duten ondorioek; nolana ere, eta ondo bidean, ondorio horiek gutxienez 2021ean edo 2022an ere nabarituko dira.

“2015eko errefuxiatuen krisia” ahaztu gabe. Siriako gerrak eraginda, pertsona eta familia asko eta asko iritsi ziren Europara, eta aterpea eta asiloa eskatu zituzten, bi bloke ekonomiko eta politiko handien (alde atetik, Errusiaren eta aliatuen eta, bestetik, Amerikako Estatu Batuen eta aliatuen) interes geoestrategikoen sustatutako gatazka zentzugabe batetik ihes egin ondoren. Krisi horrek arabarren eguneroko bizitzan izandako eragina hain zuzena ez izan arren, badu garrantzi mediatikoa, sinbolikoa eta etikoa.

Izan ere, Araban gizarte-errealitatea asko aldatu da azken bi hamarkadetan: gure egungo gizarte askoz anitzagoa da atzerritar jatorriko pertsonak iritsi aurrekoa baino. Datuek eta egungo gizarte-dinamiken azterketak, gainera, aniztasun hori hurrengo hamarkadetan handiagoa izango dela berresten digute. Atzerritar jatorriko pertsonak iristen jarraituko baitute, Espainiako Estatuko, Euskadiko eta Arabako okupazio-egiturak ezin erantzun diezaiokeen lanpostu-eskariari erantzuteko nagusiki.

Arabako gizarteak erakargarria da, lanpostuak, gizarte-zerbitzuak, jarrera tolerantak (oro har), giro baketsua eta segurua eta, batez ere, bizi-proiektuak garatzeko aukerak eskaintzen dituelako. Horren adierazgarri dira atzerritar jatorriko arabarrak ardaztat hartuta 2019an egin diagnostikoan bildutako datuak¹.

Arabako migrazio-fenomenoaren 2019ko azterketa diagnostikoa hori da *Aniztasuna Kudeatzeko Estrategia 2021-24* egiteko oinarria. Lehendabizikoan, gure lurraldean bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen errealitate sozialaren azterketa sakon eta zehatza egin zen, besteak beste honako hauek jaso zituen: arabarrei buruzko kuadrillaz kuadrillako errolda-datuak; zenbait esparruri buruzko datu estrukturalagoak (etxebizitza; gizarte-zerbitzuak; DSBE eta gisako prestazio ekonomikoak; lan-merkatua; eta hezkuntza); arabarren jarrera atzerriko immigrazioaz dituen pertzepzio eta iritziei dagokienez; eta gure lurraldean bizi diren atzerritar jatorrikoek berek dituzten iritziak, diskurtsoak eta narratiba.


Diagnostiko horrek honako dokumentu honetan aurkezten dugun *Aniztasuna Kudeatzeko Estrategia 2021-2024: kulturarteko bizikidetzaren alde* testuaren oinarriak ezarri zituen bere ondorio eta gomendioetan.

EAEko eta Arabako egitura demografikoa (biztanle-piramidea), hezkuntza-egitura (EAEko biztanleen hezkuntza-maila) eta lanbide-egitura (lan-merkatuko lanpostuen profilak) aztertuta, desoreka argi bat ikusten da, hiru elementu garrantzitsu dituenak; gainera deskribatuta hauek dira: a) jaiotza-tasa eta belaunaldi-aldaketa txikiak; b) biztanleen hezkuntza-maila handia, eta neurri bereko lanak lortzeko itxaropena; c) eta kualifikazio txiki edo ertaineko lan-nitxoak sektore batzuetan; besteak beste; mendekotasunean; etxeetako zaintzan; ostalaritzan; nekazaritzan; eraikuntzan; eta industrian.

Arabako gizarteak, aurrera egiteko, atzerritar jatorriko pertsonak hartzen jarraituko du hurrengo hamarkadetan, saldo demografikoa hobetzeko eta bertakoek hartzen ez dituzten lanpostuak betetzeko helburu bikoitzarekin. Epe laburrean, aurreikuspena da Arabako lurraldean migrazio-mugimenduek bertako dinamika ekonomikoarekin lotura estua izaten jarraitzea, baina, era berean, aurreikusi behar dugu ezen, immigrazio-prozesu helduagoak dituzten gizarteetan, aniztasuna dinamika ekonomikotik askatzen dela, bere erritmoa hartzen duela, eta konplexuagoa bihurtzen dela.

Immigrazioa, ordea, ez da soilik beharrezkoa Arabarentzat: datozen pertsonak ere herritar moduan dituzten eskubideak aitortzea behar dute, premiazkoa dute beren bizi-proiektua bakean garatu ahal izateko oinarriko baldintzak izatea, eta EAEko

¹ Oleaga, J. A., Fouassier, M., Ruiz, I., Martín, M.J., Fullaondo, A., Sancosmed, I., Moreno, G. eta Arteta, T. (2020) *Arabako migrazio-fenomenoaren 2019ko azterketa diagnostikoa*. Sarean: <https://n9.cl/nhgs>



gainerako herritarrek dituzten aukera berak izan behar dituzte tratu bereko baldintzetan. Hau da, eskubideen eta betebeharren subjektu moduan aitortuak izatea behar dute. Eta hori guztia pertsonak oro gizarteratza lortzeko bidean.


Atzerritar jatorriko pertsonak lehen adierazitako kopuru handi-handietan iristek eta kopuru horiek hurrengo urteetan handituko direlako segurtasunak gure lurraldean aurrekaririk izan ez duen hau berresten digu: asko eta askotarikoak izango dira jatorriak, kulturak, sinesmenak, hizkuntzak, ohiturak, mundu-ikuskerak. Gure gizartea oso anitza da, eta are anitzagoa izango da; Arabako gizartean asko eta askotarikoak ziren kultura-praktikak, eta orain hori areagotu egingo da. Esan dezakegu gurea kultura anitzeko gizartea dela, eta kultura eta praktika kultural anitzak dituzten pertsonaz osatuta dagoela.

Errealitate horrek berekin dakar bere kudeaketari helduko dion estrategia bat ezartzea, sortzen diren liskarrei aurre egingo diena, gatazkak konponduko dituen, Arabako gizartea osatzen dugun pertsona guztiak egiazki gizarteratzea lortzeko. Kultura anitzeko bizikidetzak ez da arazo bat, egitate bat baizik, ebidentzia bat. Baina, jakin, badakigu bizikidetzak horren kudeaketan, batzuetan, arazoak sortzen direla, konpondu beharrekoak, bizikidetzak inklusiboak, integratzaileak eta bakezkoak lortzeko.

Arabako Foru Aldundiak kulturarteko ikuspegi, hurbilbide eta strategiaren alde egin du arabarren dibertsitatea kudeatzeko. Dibertsitatea kulturartekotasunaren ikuspegitik kudeatzeko estrategia horrek funtsezko kontzeptu hau du oinarri: Arabako gizartea osatzen duten pertsona guztiekiko tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza. Xedea da esku-hartzearen egitura osoa pertsona guztien herritar-tasun-eskubideekin lotzea: denok gara berdinak legearen aurrean; denok ditugu eskubide eta betebeharrak. Eta horrek berekin dakar inor ezergatik ere ezin diskriminatu ahal izatea.

Dibertsitatea kudeatzeko kulturarteko eredu oinarritutako strategiaren ondorio da pertsona guztiak eta kultura-praktika guztiak errespetatzea, eta etorkizuneko Arabako gizartea eraikitzeko konpromisoa hartzea, hura osatzen duten eragile guztien esku-hartzearen eta interakzio dialektikoaren emaitza gisa. Hartara, aurrera egiten dugu Arabako gizartea integratzaileagoa, inklusiboagoa, zuzenagoa eta kohesio sozial handiagokoa izateko bidean, elementu horiek funtsezkoak baitira etorkizunean gizartea arrakastatsua izateko.

Egun, bereziki garrantzitsua da Arabako Foru Aldundiak tratu bera emateko eta ez diskriminatzeko printzipioarekin hartutako konpromisoa, kontuan hartzen badugu zer-nolako eragin ekonomiko eta soziala izaten ari den Covid-19aren krisi sanitarioa. Krisi-garaietan ziur dakigu estratifikazio sozialaren behealdean dauden pertsonen nozitzen dituztela gehien ondorioak, dauzkagun datuek behin eta berriz erakutsi bezala. Hortaz, garrantzitsua da Arabako Foru Aldundiak Aniztasuna Kudeatzeko Estrategia 2021-2024 horren alde egitea, kulturarteko bizikidetzak aldeztatea, diputatu nagusiak aurreko irailaren 28an Politika Orokorrari buruzko Ertabai-dan, Araba Helburu ekimena azaltzean adierazi bezala, Diputazioak jarduteko hiru ardatz estrategikotan oinarrituta baitago: "gizarte-zerbitzuak eta gizarte-kohesioa indartzea; ekonomiaren eta enpleguaren susperraldia bultzatzea, gure industriak behar dituen aldaketak egitearekin batera; eta trantsizio energetikoa eta jardun



klimatikoa”, honako helburu honekin: “lurraldeak behar dituen etorkizuneko politikak eraikitzen laguntzea”.

Azkenik, hondar gogoeta bat: Arabako Foru Aldundia konprometituta dago *Aniztasuna Kudeatzeko Estrategia 2021-2024: kulturarteko bizikidetzaren alde* horrekin, dauzkan eskumenen barruan, beste administrazio autonomiko, foral eta municipalak dauzkatenak zorrotz errespetatuta, eta haiekin koordinatuta.

2

OINARRIAK

Arabako Foru Aldundiaren Aniztasuna Kudeatzeko Estrategia 2021-2024 horrek diputazioko pertsona eta instantzia guztiek partekatutako oinarriko printzipioetan eta estrategian du jatorria, bat dator herriko beste plan eta estrategien helburuekin, eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzaren Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Inmigrazioaren esparruan jarduteko V. Planean jasotako orientazioaren ildo berekoa da.

Estrategia hori, zehazki, koherentea da honako hauetan jasotako ildo eta ardatz estrategikoekin:

- Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Plana, zeina ahaldun nagusiak adierazi baitzuen 2020 irailaren 28an Politika Orokorraz egindako Eztabaidan.
- Eusko Jaurlaritzaren Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Inmigrazioaren esparruan jarduteko V. Plana 2018-20.
- Garapen Jasangarrirako Nazio Batuen Agenda 2030.
- Migrazio seguru, ordenatu eta erregularrerako Nazio Batuen Mundu Ituna, zeina munduko herrialde gehienek sinatu baitzuten 2018ko abenduan.
- Migrazioarako Euskal Itun Soziala, EAEko gizartearen zatirik handienak, Arabako Foru Aldundiak barne, sinatua 2019ko azaroan.
- I. Immigratio Foru Plana Araban 2009-2012.
- Arabako gizonen eta emakumeen berdintasunerako IV. Foru Plana (2016-2020).
- Aguraingo Bizikidetzeta eta Dibertsitate Plana 2019-2022.
- Gasteizko Bizikidetzeta eta Dibertsitate Plana.
- Udaletako bizikidetzeta-planak, hala nola, besteak beste, Oiongo II. Bizikidetzeta Plana, Bastidako Bizikidetzeta Plana eta Kanpezuko Kulturarteko Bizikidetzarako II. Udal Plana.

2.1. Xedea

Xedeari dagokionez:

- Aniztasuna kulturarteko bizikidetzaren ikuspegitik 2021-2024an kudeatzeko estrategiak Arabako Foru Aldundiaren jardueren erreferentea izan nahi du dibertsitatearen kudeaketaren, arabar guztien kulturarteko bizikidetzaren eta tratu berdintasuna eta inor ezerengatik ez diskriminatzea aldeztearen esparruan, arreta berezia jarrita atzerritar jatorria eta/edo arbasoak dituzten pertsonekin zerikusia duen orotan.

Arabako gizarteko kultura anitzeko dibertsitate gero eta handiagoaren kudeaketak tresna bat behar du, bizikidetzaren integratzailea eta inklusiboa sustatzeko ekintzak bideratzeko, eta gizarte-eredu zuzenagoa eta kohesio-natuagoa izateko bidean aurrera egiteko.

Hori guztia, jakina denez, Arabako Foru Aldundiaren eskumen-esparruaren barruan, eta lankidetzan eta koordinatuta arituta gainerako administrazio autonomiko, foral eta munizipalekin.

2.2. Ikuspegia

Eta ikuspegiari dagokionez:


- Aniztasuna kulturarteko bizikidetzaren ikuspegitik 2021-2024an kudeatzeko estrategiak Arabako Foru Aldundiaren lehentasunezko jarduerak ardatzak jasotzen ditu, Arabako egungo eta geroko gizartea berdintasunezkoa izan dadin herritartasun-eskubideak izateari dagokionez, eta gure lurraldean bizi diren pertsona guztien aukera berdintasuna berma dezan. Eusko Jaurlaritzaren aipatu Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Inmigrazioaren esparruan jarduteko V. Planaren ikuspegi bera du etorkizuneko Arabako gizarteaz: kohesio-natuagoa, zuzenagoa eta solidarioagoa izateaz gain, "pertsona eta kultura guztien aniztasuna errespetatzen du eta gizarte-elkarreragin positiboko testuingurua sustatu" (16. or.).

2.3. Kontzeptuak

Dibertsitatea kudeatzeko, kulturarteko bizikidetzaren alde egiteko 2021-2024ko estrategia hori izena ematen dioten hiru kontzeptu nagusietan oinarritzen da:

2.3.1. Jatorri-aniztasuna

Ezin dudatuzkoa edo eztabaidatuzkoa da Arabako gizartea askotarikoa zela aurreko mendearen amaieran eta mende honen hasieran atzerritar jatorriko pertsonak gure lurraldera gero eta gehiago iristen hasi baino lehen ere. Arabako egungo gizartea orain dela mende asko hainbat jatorritako pertsona multzoen artean hasitako truke sozialen, kulturalen, ekonomikoen eta bestelakoen emaitza da. Hori ezin eztabaidatuzkoa da.



Baina, era berean, eztabidaezina da azken hamarkadetako migrazio-mugimenduek ezaugarri berriak gehitu dizkiotela dibertsitate horri, bai jatorrien aniztasunari dagokionez, bai pertsonak beste leku batzuetatik iristeko erritmoari dagokionez. Azken urteotan, nabarmen handitu da dibertsitatea, aniztasun kulturala areago-tzearekin batera, gure lurraldera iristen diren pertsonak munduko leku guztietakoak direlako.

Begi-bistakoa da, beraz, Arabako gizartearen aniztasun gero eta handiagoa. Eta munduko migrazio-joerei buruzko datuek eta azterketak berresten dute hurrengo urteetan atzerritar jatorriko pertsona asko eta asko hartzen jarraituko dugula.

Arabako gizartea osatzen duten pertsonak EAEn eta Espainiako Estatuan jaio eta espainiar nazionalitatea dute; edo EAEn jaio dira, baina atzerritar nazionalitatea dute, aita-ama atzerritarrak izateagatik; edo atzerritar jatorrikoak izan, eta atzerritar nazionalitatea dute; edo atzerritar jatorrikoak dira, baina espainiar nazionalitatea dute, pertsona nazionalizatuak dira; edo EAEn eta Espainiako Estatuan jaio dira, eta atzerritar etorkia dute. Arabako gizartean, askotarikoak dira jatorriak, etorkiak, kideen agiri-egoerak, eta hori kontuan hartzea ezinbestekoa da haren aberastasun eta aniztasun kulturala ulertzeko.

2.3.2. Bizikidetz

Aurreko paragrafoan deskribatutako pertsona guztiek osatzen dute Arabako gizartea, eta gizarte-interakziorako esparruak partekatzen dituzte: hezkuntzan, lanean, elkarteetan, erlijioetan, esparru ludikoetan, etab.

Hala ere, ez dira guztiak elkarrekin bizi gune horietan; batzuetan, haietan batera existitu baino ez dute egiten. Hortaz, koexistentzia eta bizikidetz bereizten ditugu. Lehena pertsonen edo pertsona taldeen artean gertatzen da, gune edo esparru berean daudenean, baina elkarren arteko interakziorik gabe. Bigarrena, berriz, pertsonen edo pertsona multzoen arteko bizikidetz, elkarren artean erlazioa edo interakzioa dagoenean gertatzen da.

Koexistentziak ez dakar berekin gizareratzea, pertsona guztiek beren herritartasun-eskubideak guztiz baliatu eta gizarte zuzena, berdintasunezkoa eta kohesio-natua eraikitzea bermatzen duen prozesu moduan ulertuta. Koexistentzia dibertsitatea kulturantzitasunaren ikuspegitik kudeatzearen emaitza da: kointziditzen dugu, baina ez gara erlazionatzen. Eta gizarte zatitua, desparekoa eta zuzengabea sortzen du.

Bizikidetzak gizarte-guneetan pertsonen artean erlazioa eta interakzioa izatea behar du. Dibertsitatea kulturartekotasunaren ikuspegitik kudeatzeko estrategia-ren emaitza da. Bizikidetzak partekatzea dakar berekin, eta lankidetzan aritzea eskatzen du. Eta, horretarako, elkarrekiko konfiantza sortu behar da. Arabako Foru Aldundia guztiz sinetsita dago dibertsitatea bizikidetz eraginkor eta egiazko batean oinarrituta kudeatzeko estrategia funtsezkoa dela Arabako etorkizuneko gizartea arrakastatsua izateko. Horrenbestez, estrategia horrek harreman-guneak sortzea bideratuko du, eta herritarren interakzio pertsonalerako dinamikak sustatuko ditu, benetako kulturarteko bizikidetz eraikitzeke premisa moduan.

2.3.3. Kulturartekotasuna

Etorkizunean, askotariko gizarteek izango dute arrakasta. Gizarte oro dinamikoa da: hazi, immigrazioa hartu eta hedatu egiten da; edo murriztu, emigratu eta pobretu. Zorionez, EAEko gizartea eta Arabakoa hazten ari dira, hedatzen. Egun, beste jatorri batzuk dituzten pertsonak hartzen ari gara, gure herri-proiektuan parte hartu nahi dutenak, eta gure ondoan elkarlanean jardun, gure seme-alabentzat etorkizun hobea eraikitzeko. Immigrazioa, beraz, gizarte-arrakastaren adierazlea da.

Etorkizunerantz arrakastaz abiatzeko, Arabako Foru Aldundiak argi eta garbi egiten du dibertsitatea tratu-berdintasunean eta diskriminaziorik ezean oinarritutako herritartasunaren ikuspegitik kudeatzeren alde, funtsezko elementuak baitira gure kuadrilletan bizi diren pertsona guztiak benetan gizarteratzea lortzeko.

Gizarteratze hori bultzatuko duen estrategia bat behar dugu: bizikidetzaren sustatzea kulturartekotasunaren ikuspegitik. Apustua argia da: koexistentzia gainditu behar dugu bizikidetzara iristeko. Hortaz, ezinbestekoa da jatorri eta praktika kultural desberdinak dituzten pertsonen arteko harremana. Dibertsitatea kudeatzeko ereduaz eta kulturarteko gizarteratzeaz ari gara.

Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Inmigrazioaren esparruan jarduteko V. Planean ondo adierazten den bezala, "kulturartekotasunaren politikak berekin dakar dibertsitatearen kudeaketa positiboa eta inklusiboa egitea, helburutzat hartuta oraingo gizartea aldatzea, eta kultura berri bat sortzea subjektu kulturalki desberdinen arteko interrelazioen eta interakzioen ondorioz" (17. or.). Xedea da etorkizuneko gizartea eraikiz joatea, herritar guztien parte-hartzea ahalbidetzeko eraiki ere, bai eta, inor baztertu gabe, gizarte horretako eragile guztien bilakaera interaktibo eta dialektikoaren emaitza izateko ere.

2.4. Printzipioak


Dibertsitatea kudeatzeko 2021-2024ko estrategia bi ikuspegitatik eraikitzen da, eta lau printzipio espezifikoetan oinarritzen.

Ikuspegi bikoitza:

- **Genero-ikuspegia.** Arabako Foru Aldundiak dibertsitatea kudeatzeko duen estrategiak konpromiso berezia du genero-ikuspuntuekin, estrategia osoa zeharkatzen eta orientatzen baitu.

Immigrazioaren I. Foru Planean bertan (2009-12), berariaz adierazten zen plana genero-ikuspegiarekin eginda zegoela, ulertuta hori hau zela: "... esan nahi du aintzat hartu behar direla gizarteek gizonei eta emakumeei ezartzen dizkieten ezberdintasunak, gizonezko edo emakumezko diren heinean. Eskubide eta betebeharren berdintasuna bermatu behar da eta, horretarako, beharrezko diren tresnak aurreikusi behar dira".

Berdintasun-arloko hurrenez hurrengo foru-planek ideia horri eusten diote, eta, beraz, genero-ikuspegiak edo -ikuspuntuek aukera ematen du



aztertze eta ikusarazteko emakumeen eta gizonen errealitateak bizi-esparru guztietan, IV. Foru Planak berriki jaso bezala.

Dibertsitatea kudeatzeko foru-estrategiak bere ikuspegia partekatzen du *Arabako gizonen eta emakumeen berdintasunerako IV. Foru Planarekin*, genero-teorian eta paradigma feministan oinarrituta dagoelako; izan ere, "politika publikoen neutraltasuna zalantzan jartzea ahalbidetzen du. Izan ere, askotan, itxura batean euren eraginak emakume eta gizonentzat berdinak balira bezala garatzen dira baina, egiatan, emakumeak bazterten dituzten botere harremanak eta gizarte rolak betikotzen dituzte" (12. or.).

Era berean, eta aipatu *IV. berdintasun-planak* bezala, dibertsitatea kudeatzeko foru-estrategiak ere bere egiten du elkarguneen ikuspuntua; izatez, tresna analitiko horrek aitortzen du desberdintasun estrukturalak zenbait faktore sozialen (generoa, etnia edo "arrazak" eta klase soziala) interakzioetik eta gainezarpenetik abiatuta konfiguratu direla. Horrenbestez, gure estrategiak, orobat eta ahal den neurrian, "generoaren eta beste desberdintasun batzuen elkarguneak hartuko ditu kontuan. Desberdintasun horien artean daude, besteak beste, adina, hizkuntza, sexu identitatea eta joera, dibertsitate funtzionala, etnia, jatorrizko herria, bizitzen den ingurunearen landatartasun maila. Izan ere, bereizkeria anizkoitzeko egoerak dakartzate halakoek" (12. or.).

- **Giza eskubideen ikuspegia.** Aniztasuna kudeatzeko 2021-2024ko estrategiak bere egiten du guztiz giza eskubiden ikuspuntua.

Ez da hautu arbitrario bat; aitzitik, zuzenean edaten du Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaletik, zehazkiago, 2., 6., 7. eta 13. artikuluetatik, eta, era berean, inspirazio-iturri ditu Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua eta giza eskubideen arloko nazioarteko zuzenbideko eta Europar Batasunaren ordenamendu juridikoko zenbait artikulua (Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 2.1 artikulua; Giza Eskubideen aldeko Europar Konbentzioaren 14. artikulua; Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 2.1 artikulua; Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 2.2 artikulua).

Arabako Foru Aldundiak 2021-2024an dibertsitatea kudeatzeko duen estrategia era orekatuan dator bat printzipio honetan Migrazioarako Euskal Itun Sozialarekin, zeinak berariaz jasotzen baitu (10. or.), eta jarduteko ikuspuntuan kointziditzen, honako hau dioenean: "Immigrazioaren fenomeno ez dugu ikuspegi utilitarista batetik lantzen, humanitatearen eta justiziaren ikuspegitik baizik".

Era berean, printzipio hori bat dator Migrazio seguru, ordenatu eta erregularrerako Mundu Itunaren, zeina Nazio Batuek onartu baitzuten 2018ko abenduan, eta giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidean oinarritzen baita.

Hori guztia, jakina, Arabako Foru Aldundiak dibertsitatea kulturarteko bizikidetzaren ikuspegitik kudeatzeko duen eskumen-esparruaren barruan, eta onartuta 4/2000 Lege Organikoak (urtarrilaren 11koa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzkoa, eta atzerritar horiek

gizarteratzeari buruzkoa) muga batzuk ezartzen dizkiola gizarteratze-arloko bizikidetza-prozesuen kudeaketan.

Printzipio espezifikoak:

- **Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarritzko printzipioa.** Arabako Foru Aldundia osatzen duten pertsona eta instantzia guztiek partekatu eta onartutako oinarritzko funtzionamendu-printzipio bat da. Arabako lurraldean bizi diren pertsona guztien herritartasun-eskubideez ari gara, pertsona guztiek, ezaugarri fisikoak, ideiak, praktika kulturalak, sexu-orientazioa, egoera ekonomikoa, jatorria eta abar edozein izanda ere, herritar-eskubide eta -betebehar berak izan ditzaten.

Printzipio hori zuzenean inspiratzen da 2000. eta 2002. urteetan onartutako zuzentarau komunitarioetan (Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2000/43/EE Zuzentaraua, EEAO, L180, 2000.07.19; Kontseiluaren 2001eko azaroaren 27ko 2000/78/EE Zuzentaraua, EEAO, L303, 2000.12.2; eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko iraileko 2002/73/EE Zuzentaraua, EEAO, L296, 2002.10.5). Tratu-berdintasunaz ari garenean, honako hau dela ulertzen dugu: "... arraza- edo etnia-jatorrian, erlijio-arrazoietan, usteetan, desgaitasunean, adinean edo sexu-orientazioan oinarritutako zuzeneko edo zeharkako diskriminaziorik ez izatea".

- **Gizarte-kohesioaren printzipioa.** Printzipio honek gorago deskribatutakoa du inspirazio-iturri, erlazio zuzena du harekin, Arabako etorkizuneko gizartea desparekotasun sozial txikiagoekin eraikitzeari baitagokio. Ezinbesteko eta sorburu du bizikidetza tratu-berdintasunean eta diskriminaziorik ezean oinarrituta egotea, giza eskubideak errespetatzea eta bereziki ondo hartzea genero-berdintasuna den oro.

Dibertsitatea kudeatzeko 2021-2024ko strategiaren sakoneko helburua da gizarte zuzenagoa eraikitzea, desparekotasun gutxiagokoa, eta bide horretan ari da.

Hain zuzen ere, Arabako ahaldun nagusiak berariaz adierazi zuen 2020ko irailaren 28an Politika Orokorrari buruzko Eztabaidan emandako hitzaldian gizarte-kohesioa sendotzea dela politika sozialen lehentasunetako bat. Eta Arabako Foru Aldundiaren strategiak printzipio hori bere egiteak argi uzten du aurrera egin nahi duela gizarte bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa lortzeko bidean.

- **Gizarte-interakzioaren printzipioa.** Aniztasuna kudeatzeko 2021-2024ko strategiak kulturarteko bizikidetzan oinarritutako eraldaketa sozialaren ideia du euskarri. Arabako gizartea osatzen duten pertsona guztien eguneroko bizikidetza hori benetan kulturartekoa izateko, neurri egokiak prestatu behar dira, elkarguneak eraikitzeko, eta gizarte-trukea, pertsonen arteko harremanak eta harreman sozialak bultzatzeko ezaugarri, jatorri eta/edo genero desberdinak dituzten pertsona eta/edo pertsona talde guztien artean.

Arabako Foru Aldundiaren estrategiak ezinbesteko baldintza du konpromiso hori, Arabako gizartea kohesionatuagoa, bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa izateko bidean aurrera egiteko.

Ikuspegi horrekin, Arabako Foru Aldundia berriz ere koordinatzen da Eusko Jaurlaritzaren Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko V. Planarekin (2018-20) interakzio sozialaz honako hau dioenean: "kulturartekotasunaren pedagogia urbanoaren giltzarria da. (...). Interakzioa da egoera egokia sortzea eguneroko bizitzako elkartzeko positibo eta eraikitzaileko, kultura, generoa, sexu-identitatea, adina, estatus sozioekonomikoa eta abar askotarikoak diren testuinguruetan" (19. or.).

- **Autonomiaren printzipioa.** Dibertsitatea kudeatzeko, kulturarteko bizikidetzaren alde egiteko 2021-2024ko estrategiak interes esplizitua du kuadrillak, udalak, administrazio-batzordeak eta kontzejuak partaide izan daitezten..

Horrenbestez, jarduteko kontzeptuzko oinarriak baino ez ditu bildu eta finkatu nahi, partekatutako ikuspegiak eta printzipioak ezarriz, bai eta lan komuna egiteko ildo estrategikoak ere, lurralde osoko eragile sozial publiko zein pribatuekin aurrez egindako diagnosi-lan partaidetu eta parte-hartzaileen emaitza moduan.

Baina kuadrillen, udalen, administrazio-batzordeen eta kontzejuen autonomia eta eskumenak errespetatuta, ekin beharreko jarduerak gauzatzeko, hurrengo atalean zehatzago adierazten dugun bezala.

Hitz batean, estrategia elkarrekiko lankidetzeta, konfiantza eta leialtasun instituzionalean oinarrituta dago.

2.5. Jarduera

Dibertsitatea kulturarteko bizikidetzaren ikuspuntutik kudeatzeko 2021-2024ko estrategia hori garatzeko, Arabako Foru Aldundia guztiz sinetsita dago ahalik eta pertsonak gehienek parte-hartze eraginkorra izan behar dutela Arabako kuadrilla bakoitzean gauzatzen diren ekintza eta ekimenetan.

Ez da jarrera edo adierazpen itxurati bat: ezin negoziatuzko printzipio adierazpen bat da. Immigrazioaren Arabako I. Foru Planean bertan (2009-12) orientazio horrekin lan egin zen: "Plana prestatzeko orduan parte-hartzea ziurtatzeaz gain, abian jartzekoan eta ezarpena ebaluatzerakoan ere bermatu egin behar da parte-hartzea".

Arabako Foru Aldundiak kuadrileen aniztasuna kudeatzeko egiten dituen ahaleginak indartzeko eta hurbilago egoteko asmoa du. Horretarako, neurri egokiak hartuko dira, herritar eta gizarte-eragile guztiek benetan parte har dezaten lortzeko.

Arabako Foru Aldundiak aniztasuna kudeatzeko 2021-2024rako duen estrategiak, gainera, lurralde osoaren ikuspegi argia du, eta aipatu Immigrazioaren Arabako I. Foru Planean (2009-12) zegoen ideia hau azpimarratzen du: "Plan honen abiapun-

tuak dira aniztasun soziala eta Arabako kuadrila eta udalerrietako zerbitzu publikoetan dauden garapen-maila desberdinak. Horregatik, planak arreta jartzen du errealitate guztietan, kuadrileetako ekintza espezifikoek eta prozesu parte-hartzaileen garapenean, planaren garapenak testuinguru bakoitzeko premia espezifikoek erantzuten diela ziurtatzeko.”

Horrenbestez, jarduteko zutabeak edo ildo estrategikoak baino ez dira esplizitu ki jasotzen foru-estrategian, Arabako lurralde historikoan kulturarteko bizikidetzak sustatzeko eta sentsibilizazio-lanak egiteko esparru orokor moduan. Izan ere, gauzatu beharreko ekintza zehatzak kuadrilla guztietako eta bakoitzeko gizarte-errealitate eta premia berezietara egokitzeko, lan-metodologia izango da kuadrillek, bai eta udalek, administrazio-batzordeek eta kontzejuek ere, beren gain hartzea ekintzak prestatu eta gauzatzeko ardura, foru-esparruarekin bat etorritu. Hortaz, beharrezko autonomia, independentzia eta autokudeaketarako ahalmena izango dute, eraginkorrak izan eta gauzatu ahal izateko.

Hitz batean, Arabako Foru Aldundiak jarduteko kontzeptuzko oinarriak ezarriko ditu, lurralde-estrategia partekatua proposatuko du eta baliabidez hornituko ditu kuadrillak, udalak, administrazio-batzordeak eta kontzejuek. Eta horiek arduratuko dira kasuan kasuko ekintzak zehazteaz eta gauzatzeaz.

Azkenik, garatu beharreko ekintzak partaidetuak izango dira jatorrian, eta itunduak eta kontrastatuak ekintzen xede direnekin, pertsona eta gizarte-eragile guztiei sarbidea izatea bermatuko dieten metodologia parte-hartzaileen bitartez. Gure gizarte osatzen duten askotariko pertsonekin eta pertsonentzat prestatutako estrategia bat da.


3

ANIZTASUNA KUDEATZEKO ESTRATEGIA

Dokumentu honetan jaso ahal izan dugun bezala, gure inguruneko gizarte-errealitatea etengabe aldatzen ari da, eta migrazio-prozesuen barruan, pertsona batzuek bizilekua Arabako kuadriletan ezartzen dute, eta beste batzuk, ordea, iragaitzaz daude, Europako Erdialdera eta Iparraldera iristeko bidean. Egungo egoera badaezpadako samarra da Covid-19aren ondorioz, baina ez du ematen migrazio-mugimenduak desagertuko direnik, eta ezin eztabaidatuzkoa da atzerritar jatorriko pertsonak iristen jarraituko dutela. Horiek horrela, eta kontuan hartuta bolada batean kontrol handiagoaren eta mugak ixtearen ondorioak ikusiko ditugula, uste dugu aniztasun kulturala egun bezala geroan ere presente egongo dela Arabako lurraldean.

Hortaz, ulertzen dugu 2021-2024an aniztasuna kudeatzeko foru-estrategia bat izan behar dela, hiru ardatz handitan oinarritua, eta, bizikidetzaren aterpean, lehen-tasunezko lau ekintza ildotan gauzatu behar dela, bide-erakusle izan daitezen Arabako kuadrillentzat, zeinek bere inguruneko errealitatetik abiatuta jarduketa zehatzak sortu eta martxan jartzeko. Hori guztia ahaztu gabe beti kontuan hartu behar direla bi premisa handi ekintza horien gauzapenean; alde batetik, herritarrei azaltzea zer lan egiten duen Arabako Foru Aldundiak aniztasunaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloan; eta, bestetik, lehenetsi beharra zertan ardaztu hobetzeko ahaleginak, eta jarraibide batzuk ezartzea oinarri izan daitezen egungo eta geroko lanerako esparru honetan (1. irudia).

1. IRUDIA. ANIZTASUNA 2021-2024AN KUDEATZEKO ESTRATEGIA



Iturria: Geuk egina.


3.1. Hiru lehentasun-ardatz ezartzea, aniztasuna kudeatzeko strategiaren gida moduan

Arabako lurraldean bizikidetzaren sustapena foru-jardunaren erdian birkokatze-ko estrategiaz pentsatzean, aniztasunaren eta kulturarteko bizikidetzaren aldeko Arabako Foru Aldundiaren jarduna eta proiektzioa zuzentzen dituzten hiru ardatz handiren gainean altxatzen da. Zehazki, honetaz ari gara:

3.1.1. Egiturak sendotzea

Arabako lurraldean txertatzen laguntzeko, funtsezkoa da, gure ustez, bizikidetzaren sustatzea kulturartekotasunaren ikuspegitik, ulertuta ereduaren eta balioen interrelazio-prozesuak direla, komunikazio- eta elkarrekotasun-harremanak, berdintasunean oinarrituta, talde kulturalki askotarikoen artean gertatzen direnak. Kulturartekotasuna eta haren kudeaketa lehentasunezko maila batean kokatzeko, egiturak sendotuz jardutea proposatzen dugu, esku-hartzea hiru mailatan koordinatu eta dinamizatzeko:

2. IRUDIA. 1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: KULTURARTEKOTASUNAREN KUDEAKETA BIRKOKATZEA, ZEHARKAKO LEKU ESTRATEGIKOA EMANDA



Iturria: Geuk egina.

3.1.1.1. BARRUAN

Arabako Foru Aldundiak arabarrekiko konpromisoa du kultura-aniztasun gero eta handiagoa eta kulturarteko bizikidetzak kudeatzea, tratu berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioan oinarrituta, eta Arabako lurraldean bizi diren guztiek herritartasun-eskubideak baliatzeko aukera izanda. Horretarako, eta erakundeetan bertan egin beharreko lanari dagokionez, lehentasunezkoztat jotzen da batez ere bi ekintza kontuan hartzea:

- Arabako Foru Aldundiak gidatutako proiektu estrategikoetan kulturarteko ikuspegia zeharkakotzea. Ulertuta antolatu, egituratu eta edukiz bete behar direla erakunde honek, estrategia honen ikuspegiari erantzuteko, lehentasunezkoztat eta funtsezkoztat jotzen dituen proiektuak; Arabako gizartearen berdintasuneko izatea lortu nahi baita, pertsona guztien aukera-berdintasuna bermatzen duena, kultura-aniztasuna aintzat hartzen duena, eta interakzio sozial positiboa gertatzeko behar diren guneak sustatzen dituena.
- Foru-erakundeetako teknikari eta politikarientzako prestakuntza-eskaintza. Arabako Foru Aldundiko zerbitzuen artean zeharkako dinamikak izateko, beharrezkoztat jotzen da kultura-aniztasunaren eta bizikidetzaren arloko prestakuntza, migrazio-fenomenoari buruzko gogoeta sustatuta. Bestalde, etorkizunean sailak elkarlanean aritzeko aukera sustatuko du, politika publikoen eta interes komunekoen gaien agendaren plangintzan zeharkakotasuna gehituta, ahal den neurrian.

Bi ekintzak abian jartzeko, planifikatzeko, kudeatzeko eta garatzeko, gauzatuko direla bermatuko duen instantzia bat izan behar da, koordinatuta Berdintasun, Lan-kidetzak eta Kulturartekotasun Zerbitzuarekin, bai eta Arabako Foru Aldundiaren egitura osatzen duten eta prestakuntza-saioetan parte hartzen duten sailekin ere.

3.1.1.2. KANPOAN

Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuak kulturarteko ikuspegia bultzatzen du aniztasunaz eta bizikidetzaz ari garenean, honako honetan mami-tzen den egitura bat sortzearen bidez:

- Kuadrilletan bizikidetzarako, aniztasunerako eta kulturartekotasunerako mahaiak eratzea. Aipatzen ditugun mahai horietan, ordezkari politikoak eta teknikoak izango dira, bai eta herritarren eta elkarten ordezkariak ere, eta migrazioen eta kulturartekotasunaren esparruan ez ezik, lant ditzaketen gaiekin lotura zuzena duten beste esparru batzuetan ere lan egingo dute (berdintasuna, hezkuntza, osasuna, enplegua eta abar). Mahai horiek kuadrilla bakoitzean bizikidetzeta-, aniztasun- eta kulturartekotasun-gaiak kudeatzen eta koordinatzen dituenak zuzenduko ditu. Bestalde, denboran zeharreko parte-hartze egonkorraren alde egiten da, zerikusia duten eragileen konpromisoa lortu nahirik. Mahai bakoitzak erabakiko du zer gai landu, zein diren interesekoak bizikidetzeta hobetzeko kuadrilla bakoitzaren ingurunean, eta zein datozen bat Arabako Foru Aldundiak bultzatzen dituen eta estrategia honetan jasota dauden lehentasunezko ildoekin, eta horretarako proposamenak eta ekintzak ahalik eta zehatzenak izango dira. Era berean, elkargune hori eragileen arteko koordinazioa hobetzeko eta beste mahai batzuk egiten ari diren lanarekin sinkronizatzeke erabiltzen da, eta beti ere baztertzen da elkargune hori bizikidetzeta-, aniztasun- eta kulturartekotasun-gaietan funtzionatzen ari diren proiektu eta programei buruzko informazioa emateko baino ez izatea. Gainera, entitateen arteko komunikazioa eta lankidetzeta eta esku hartzen duten ingurunean duten eragina hobetzea eta trinkotzea ere lortu nahi da.

Idazkaritza tekniko batek antolatu, kudeatu eta dinamizatuko ditu mahaiak, eta kuadrilla bakoitzak zer behar duen zainduko du, bai eta mahai bakoitzean erabakitakoak ondo gauzatzen direla ere. Horrek, dinamizazio-egitura egonkor bat sortzeaz gain, Arabako Foru Aldundiko kulturartekotasun-teknikariekin ez ezik, kuadrilla bakoitzeko kultura-aniztasunaren esparruan erreferente diren politikari eta teknikariekin ere komunikatzen eta koordinatzen lagunduko du.

- Bestalde, Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuaren ustez, funtsezkoa da mapaketa oso bat egitea kuadrillaz kuadrilla kultura-aniztasunaren eta kulturarteko bizikidetzaren esparruan, lehen eskutik jakiteko zer ildotan lan egiten ari den, zer gabezia egon daitezkeen, zein diren zerikusia duten eragileak, zein nabarmendu beharreko profilak, abian jarritako prozesuak, etab. Hitz batean, errealitatea aztertu behar da ikusteko zer duen Arabako kuadrilla eta udal bakoitzak lana sustatzeko kultura-aniztasunaren eta bizikidetzaren esparruan, eta beti ere lan-ekimenak bikoiztea eta gainezartzea ekiditeko. Hiru azterketa zehazten dira:
 - Lehen mapaketak aditzera ematen du kultura-aniztasunarekin, kulturartekotasunarekin, immigrazioarekin eta erlazionatutako beste zenbait esparrurekin zerikusia duten parte hartzeko mahai, batzorde, batzar eta abarren artean zein ari diren lanean Arabako Lurralde Historikoko udaletan eta kuadrilletan, eta zein zuzentzen dituzten Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak. Azterketa horrek ez du bakarrik kuantifikatzen jarduneko egiturak eta haien lurralde-banaketa,

bai eta dauzkaten helburuak eta edukia ere, eta bakoitzak betetzen dituen eginkizunak zehazten ditu.

- Bigarren mapaketaren xedea da zehaztea zein diren Arabako kuadrillean kultura-aniztasuna eta kulturarteko bizikidetzak kudeatzeko ardura duten eragile teknikoak, eta zein erreferentziako ordezkari politikoak Arabako udaletan eta kuadrillean. Era berean, azterketa horren barruan sartuko lirateke kultura-aniztasunarekin zerikusia duten ekimenak sustatuz eta jarduerak bultzatuz, sentiberatuz eta esku hartuz Arabako gizartea osatzen duten pertsona guztiak benetan gizarteratzea lortzeko lanean ari diren funtsezko guneak. Ikastetxeak, aisialdirako guneak, kultura-gelak, kiroldegiak eta abar ditugu, eta guztiak funtsezkoak dira kulturartekotasuna lantzen jarraitzeko.
- Azkenik, hirugarren azterketa dago, Arabako kuadrillean kultura-aniztasunaren eta bizikidetzaren inguruan egiten ari diren edo planifikatzeko eta abian jartzeko prozesuan dauden jarduera eta proiektu guztiak jasotzeko. Mapeaketa horrek aukera ematen die aniztasunaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloko kudeaketarekin eta esku-hartzearekin zerikusia duten eragileei tresna bat izateko, jakin dezaten zertan lan egiten ari den eta zer gabezia dauden Arabako gizarte osoaren egiazko gizarteratzea lortzeko ekintza zehatzen bidez.

Azterketa hori hiru mapeaketa desberdinen bidez gauzatu beharrekoa da, eta kuadrilla bakoitzeko idazkaritza teknikoaren zeregina izango da garatu eta zertzea. Kuadrilla bakoitzeko errealitate zehatzaren berri izatea oso baliagarria izango da etorkizunean esku-hartzeak garatzeko kulturarteko bizikidetzaren alde.

3.1.1.3. ERAKUNDEEN ARTEAN

Immigrazio-arloko eskumen instituzionalak zedarritatuta daude, erreferentziatuz zer arau-esparru hartzen dugun: Estatukoa, autonomikoa, forala edo tokian tokikoa. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, haren eskumenekotzat jotzen da etorkinak gizarteratzea, eta aukera du Estatuan onartzen den oinarritzko legedia garatzeko eta betetzeko, baina, zehazkiago, autonomia-erkidegoaren eskumen eskusibokoak diren sektoreetan. Zehatzago, eta autonomia-erkidego osorako erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremani buruzko legerari dagokionez, gizarte-laguntzari eta garapen komunitarioari dagozkion gaietan egikaritzeko eskumena dute.

Arabako Foru Aldundiko Berdintasun, Lankidetzak eta Kulturartekotasun Zerbitzuak, beste erakunde batzuek egindako lanarekin koordinatu nahirik, parte hartzen du lankidetzak bilatzeko partekatutako guneetan, Euskadin eskubideetarako sarbidearen, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan garatzen ari diren ekimenak eta lanak indartzeko. Zehazki, hala jasotzen du Eusko Jaurlaritzaren *Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko V. Planak*, EAEko hiru diputazioekin eta udalekin batera, teknikalari osatutako lantalde baten antolaketa kudeatzen duelako, kontu horiei guztiei heltzeko.

Era berean, Arabako Foru Aldundian beharrezkotzat eta lehentasunez jotzen dute Arloan guneak sortzea Arabako kuadrillean politikariek eta teknikalariak

trukea egiteko, azken horiek egiten duten lana askoz hurbilagoa, dinamikoagoa eta zuzenagoa delako kultura-aniztasunaren kudeaketari eta esku-hartzeari dagokienez. Kasu horretan, zerbitzuaren mendeko instantzia baten ardura izango da, zerikusia duten eragileen koordinazioaren eta kudeaketaren bidez, ekintza eraginkorrak eta lehentasunezkoak abian jartzea kulturarteko bizikidetzaren esparruan.

3.1.2. Arabako Foru Aldundiak kulturartekotasun-arloan egiten duen kudeaketa bistaratzea

Arabako Foru Aldundiak urteak daramatza kultura-aniztasuna eta kulturarteko bizikidetzak kudeatzen eta kontuan hartzen, eta, era berean, lehenago adierazi dugun bezala, elkarlanean eta koordinatuta dihartu beste administrazio lokal eta autonomiko batzuekin haien eskumen-esparrua errespetatuz, Arabako gizartea integraztaileagoa, inklusiboagoa eta gizarte-kohesio handiagoa izan dadin. Jada 2009. urtean, *Arabako Immigrazioaren I. Foru Plana* aurkeztu zen, zeinean argi uzten baitzen foru-erakundearen konpromisoa zela etorkinei Araban gizarteratzen laguntzea eta bizikidetzak esperientzia positiboak garatzea. Hamarkadatik gora igaro ondoren, ahalegin horiek indarrean daude oraindik, eta horren adierazgari da kulturarteko hurbilbide eta estrategiaren alde egitea bertakoen aniztasuna kudeatzeko.


Gizarte berdintasunezkoagoa, integraztaileagoa eta kohesionatuagoa lortzeko bide horretan, agerian utzi behar da Arabako Foru Aldundiak egiten duen lana, bai foru-erakundearen egitura osatzen duten sailen bidez -Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea, Gazteriaren Foru Erakundea, Kultura, Euskara eta abar-, bai kuadrillen, udalen, elkarte-sarearen eta, oro har, Arabako herritarren bidez. Horretarako, komunikazio-estrategia bat abian jartzea planteatzen da, nahitaez komunikazio-plan bat izan behar duena, helburu orokorra izanda ikusaraztea zer lan egiten duen Berdintasun, Lankidetzak eta Kulturartekotasun Zerbitzuak aniztasunaren kudeaketa sustatzeko, arabar guztien kulturarteko bizikidetzaren eta tratu-berdintasuna aldeztearen eta inor ezerengatik ere ez diskriminatzearen ikuspegitik. Plan horrek honako hauek bildu beharko ditu:

- Diputazioak kulturartekotasuna kudeatzeaz errealitatetik ahalik eta hurbilen zabaltzen duen irudiaren azterketa, indarguneak eta ahulguneak adierazita,
- komunikazio-estrategia orientatu ahal izateko zer publikotara jo behar den identifikatzea,
- publiko-profil bakoitzarentzako giltza-mezuak sortzea,
- publiko bakoitzarengana iritsi ahal izateko bitartekoak zehaztea, eta
- komunikazio-ekintza zehatzak programatzea.

Hitz batean, funtsezkoa da komunikazio-mekanismoak izatea, barruko zenbait norabidetan –horizontalki, gorantz, beherantz- mugitu daitezkeen foru-erakunde profesional teknikoaren eta politikoen artean. Era berean, gure interesekoak diren

xede-publiko guztiekin komunikatzeko eta hitz egiteko bideak ezarriko dira. Komunikazio-plana garatzea eta gauzatzea interes handiko tresna bat izango da, Arabako Foru Aldundiaren ikusgaitasuna kudeatzeko bizikidetzaren eta kultur-aniztasunaren esparruan.

3. IRUDIA. 2. ARDATZ ESTRATEGIKOA: ARABAKO FORU ALDUNDIAK KULTURARTEKOTASUNAREN ESPARRUAN EGITEN DUEN KUDEAKETA BISTARATZEA



Iturria: Geuk egina.

3.1.3. Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuaren egitura berrantolatzea Foru- eta Lurralde-estrategiarekin bat


Arloak kulturartekotasunaren esparruan dituen bitartekoak eta prozesuak berrantolatu ahal izateko, lehenik eta behin honako hauen artean eskaintzen dituen bitarteko guztiak aztertu behar dira: dirulaguntzen deialdi publikoak; Arabako kuadrilletako batzuetan abian jarritako laguntza teknikoak; dinamizatzen dituzten erakundeak; hasita dauden prozesu parte-hartzaileak; kolektiboak prestatzeko eta sensibilizatzeko hitzarmenak; etab.

Azterketa horren ondoren, berrantolaketa bat egingo da, Arloaren lehentasunak zein diren erabakitzeko balioko duena, eta uneoro koherentzia bilatuko da, eta jardunean dauden bitarteko eta prozesu guztiak erlazionatuko dira. Horren bidez, kulturartekotasunaren esparruan Arloaren egitura osatzen duten bitartekoen eraketa eta eraginkortasuna hobetu nahi dira, Arabako kuadrilla guztietan esku hartzeko, sensibilizatzeko, eragina izateko eta parte hartzeko prozesuen garapen onena sustatuta.

Azken batean Arabako Foru Aldundiak zuzendu eta zainduko du berrantolaketa horren egokitasuna, baina proposatzen da bitartekoak berregituratzeko proposamenak aztertu eta lantzeko lana egiteko instantzia bat izatea. Eta ondo izan liteke, besteak beste, Arloak kulturartekotasunaren esparruan egiten duen kudeaketa bistaratzeko eta kulturartekotasuna kudeatzeko posizionamendu estrategikoa-

ri dagokionez koordinazio- eta kudeaketa-lanak egiteko erreferentziatzkoa dena bera (edo, behintzat, komunikazio-bide arinak izatea), betiere etengabe koordinatuta Berdintasun, Lankidetzaren eta Kulturartekotasun Zerbitzuko langile politiko-teknikoekin.

4. IRUDIA. 3. ARDATZ ESTRATEGIKOA: BERDINTASUN, LANKIDETZA ETA KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUAREN EGITURA BERRANTOLATZEA FORU- ETA LURRALDE-ESTRATEGIAREKIN BAT




Iturria: Geuk egina.

3.2. Bizikidetzaren kulturartekotasunaren ikuspegitik finkatzea Arabako lurraldean jarduteko esparru gisa, eta lehentasunezko jardura-ildo batzuk proposatzea, Arabako kuadrilla bakoitzean ekintza zehatzak diseinatu eta garatzeko

Lehenago adierazi dugu aniztasuna kudeatzeko 2021-2024ko estrategiak hiru kontzeptu nagusitan dagoela oinarrituta: aniztasuna, kulturartekotasuna eta bizikidetzaren; beraz, bizikidetzaren da horietako bat. Eta ulertzen dugu azken hori harreman-prozesu dinamiko bat dela, non pertsonen arteko interakzioa gertatzen baita horretarako asmo argiarekin, beti ere errespetu aktiboa oinarri dela, baina gizarteak ez ditu beti partekatzen interakzio sozialaren esparruak. Horregatik, aipatzen diren guneetan ez dago bizikidetzarik, koexistentzia baizik. Hala ere, estrategia horren xedea ez da soilik gizabanakoek kointziditzea gune komunean elkarren arteko interakziorik gabe; aitzitik, Arabako etorkizuneko gizartearen arrakastatsua izateko, ezinbestekoa da pertsonen artean erlazioa eta interakzioa izatea gizarte-guneetan, non partekatu eta elkarlanean aritzen baita, eta, horretarako, elkarrekiko konfiantza sortu behar da.

5. IRUDIA. EKINTZA-EREMU NAGUSIA ETA LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ILDOAK



Iturria: Geuk egina.

Horregatik, Arabako Foru Aldundiaren ustez, lehentasunezko jardueren esparrua da bizikidetzaren zeharreko sustapena. Eta paradigma horretan oinarrituta, lehentasunezko ekintza-gunea da bizikidetzaren sustatzeko ekintza- eta sentsibilizazio-bitartekoak eta -tresnak ematea honako hauetan:

- mapaketan aurrez identifikatutako giltza-guneetan, hala nola ikastetxeetan, osasun-zentroetan, esparu publikoan, kiroldegietan eta abar, lana eta ekimenak kultura-aniztasunaren eta bizikidetzaren ikuspegitik sustatu eta indartzeko, eta
- giltza-esparruetan, hala nola gazteen artean, aisialdian, euskara, kultura eta kirolean. Bitartekook zuzenean edo zeharka esku hartzen baitute pertsona eta kolektibo kulturalki askotarikoen arteko bizikidetzaren sustapenean.

Hortaz, uste dugu aniztasuna 2021-2024an kudeatzeko foru-estrategia bizikidetzaren sustapenak bultzatutako lehentasunezko lau ekintza-ildo handitan gauzatzen dela. Lau ildo horiek, zeinak ondoren azalduko baititugu, erreferentzia dira Arabako kuadrilla eta udalerrri bakoitzaren errealitatera egokitutako jardueren proposamen zehatzak diseinatu, planifikatu eta abian jartzeko, beti ere itunduta eta lan iraunkorra eginda Arabako Foru Aldundiak sortutako truke-gune horietan Arabako kuadrilletako langile politiko-teknikoekin.

A. EZAGUTZA ETA INFORMAZIOA SORTZEA KULTURA-ANIZTASUNARI ETA BIZIKIDETZARI DAGOKIENEZ

Immigrazioa ez da fenomeno puntuala, eta hala egiaztatu ahal izan dugu azken hogeitun urteetan, ikusi baitugu beste herrialde batzuetatik etorritako pertsonak Arabako udalerrietara iritsi direla, eta horietan finkatu eta errotu direla. Era berean, beharrezkotzat jotzen dugu atzerritar jatorriko biztanleen askotariko errealitateak ezagutzea. 2019ko Arabako migrazio-fenomenoari buruzko azterketa diagnostikoak berak adierazten zuen ezen bizikidetzaz mintzatzean eragina zutela Arabako bertako biztanleen pertzepzioek eta aurrejuzkuek, dela janzkeragatik edo itxura fisikoagatik, dela imaginario kolektiboan izan ditzaketen lanpostuei dagokienez egon daitekeen erlazio zuzenagatik, besteak beste.

Lehentasunezkoa da Arabako kuadrilletako kultura-aniztasunaren ezagutza toki-esparrutik nahiz foru-esparrutik sustatzea xede duten ekintzen diseinuari erreparatzea. Honetaz ari gara:

- kultura-gaitasunei buruzko prestakuntza,
- herritarrei informazioa ematea errealitate kulturalki askotariko honetan, erakundeak arretarako eta esku hartzeko gune gisa ahaztu gabe.


B. ERLAZIONATZEKO ETA ELKARTZEKO GUNEEN SUSTAPENA

Lehen ekintza-ildoari dagokionez, eta jatorri eta kultura desberdinak dituzten pertsonen arteko interakzioa eta ezagutza eragozten edo zailtzen dituzten oztupoak gainditzeko, lehentasunezko premiazat jotzen da erlazionatzeko eta elkartzeko guneak sustatzea, eta horiek puntualak ez izatea, baliagarriak eta egokiak izan arren elkar ulertzeko loturak sortzen hasteko, ez dugulako horretan bakarrik geratu behar.

Horregatik, erlazionatzeko eta elkartzeko guneen sustapena honela gauzatzen da:

- Elkar ezagutzea ahalbidetzen duten eta harremanak eta elkarteak sustatzen dituzten guneak bultzatzeko ekintza zehatzak.
- Gune publikoak ezartzea, pertsona kulturalki askotarikoen arteko komunikazioa eta elkarrizketa sustatzeko jarduerak garatzeko.
- Interakzio soziala eta konfiantza bultzatzen dituzten erreferentziazko komunitateekin lan egitea.

Horiek dira kuadrilla eta udalerrri bakoitzeko errealitate espezifikoaren arabera zehaztu eta diseinatuko diren oso planteamendu orokorretako batzuk. Lurralde-barruti bakoitzak aztertu beharko du nola sustatu ongien komunikazioa eta elkar ezagutza bertako biztanle guztien artean, Arabako Foru Aldundiak dauzkan bitarteko eta prozesu guztietan oinarrituta.



C. ZURRUMURRUEN AURKAKO SENTSIBILIZAZIOA

Arabako biztanleek atzerritar jatorriko pertsoneri dagokienez dituzten pertzepzioei eta jarrerei buruzko barometroaren arabera, zehazki 2019an migrazio-fenomenoaz egindako azterketa diagnostikoan jasotakoaren arabera, gizarteak immigrazioarekiko iritzi positiboa du, baina pertsona guztien erreakzioa ez da bera, jarrera positiboekin batera jarrera arrazistak, xenofoboak eta intoleranteak ere daudelako. Jarrera horiek immigrazioari, atzerritar jatorria edo arbasoak dituzten pertsoneri lotutako estereotipo negatiboetan oinarritzen dira. Zurrumurruek direlako ari gara, zaildu eta trabatu egiten baitute bizikidetzarako eta elkar ezagutzarako guneak sortzea, errespetua eta entzutea oinarritzat hartuta.

Arabako Foru Aldundiak urteak daramatza lanean estereotipo negatibo horiek agertzearen eta errepikatzearen aurka, kuadrilla batzuetan gizarte zurrumurruen aurka sentsibilizatzeko estrategia bat abian jartzen duenean, zertarako eta immigrazioaren, aterpetzearen eta kultura-aniztasunaren aurkako estereotipo horiek eragindako ondorioei aurre egiteko. Kontua ez da bakarrik Zurrumurruen Aurkako Sarearen lana finkatzea, bai eta gainerako kuadrilletara zabaldu ahal izatea ere. Arrazismoaren eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko ekintza zehatzetan oinarrituta sentsibilizatzeko jarduera-ildo bat bultzatzeko estrategia horretan, ekintzak kuadrilla bakoitzeko errealitateak erabakiko ditu, eta parte hartzeko, koordinatzeko eta erabakitze mekanismo propioetan oinarrituko dira.

D. ATZERRITAR JATORRIA ETA/EDO ARBASOAK DITUZTEN BIZTANLEEN PARTAIDETZA SUSTATZEA ETA HAIEN IKUSPEGIA JASOTZEA

Esku hartzea kolektibo baten parte izatea da, arlo komunitarioan bezala kolektiboan ere. Elkarrekin bizitzeko era bat da, eta, kulturalki askotarikoak diren pertsonen kasuan, parte direla sentitzen duten gizartean betetzen duten rola balioesteko bitarteko bat. Arabako Foru Aldundiak, parte-hartzea bultzatu nahirik, lehentasunez jotzen du parte-hartzearen aldeko ekimenak sustatzea, sentsibilizazio-guneak sortzearen osagarritzko prozesu moduan. Parte-hartze horrek gizarteratze handiagoa ahalbidetu behar du, gogobetetzea ez bakarrik indibiduala izatea, bai eta komunitarioa izatea ere, eta diskriminazioaren aurka egitea, Arabako gizarte ezagutzeko, bertan nork bere burua ezagutzeko, gizarte horretako praktika kulturalak kontserbatzeko eta beste batzuekin partekatzeko.

Parte-hartzea honako hauei dagokienez gauza daiteke, eta jarduteko proposamen espezifikoetarako aukera eman dezake:

- Elkarte-sarea: esperientziak partekatzeko eta, bestek beste, lan-, bizitegi-, hezkuntza- eta bizikidetz-esparruetan hobekuntzak bilatzeko konfiantza ematen duten guneak dira.
- Araban bertako etorkia duen gizartearekiko gune komunak: ekarpenak kon-tuan har daitezkeen denen ongizaterako erabakiak hartzean. Hitz batean, elkarrekin bizitzeko guneak bilatzea.

Aniztasuna kudeatzeko 2021-2024ko foru-estrategiaren barruko Arabako kuadrilla bakoitzean dauden askotariko errealitateak direla eta, jarduera zehatzak diseinatu, programatu eta planifikatzeko irizpide desberdinak erabiltzen dira, kuadrilla bakoitzean eta bakoitzarekin itundu beharrekoak, kontuan hartuta biztanleen, parte hartzeko mahaien eta teknikarien beharrak. Hau da, kudeaketa- eta koordinazio-egitura bat sortuko da kuadrillaz kuadrilla, Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuko teknikariekin etengabeko komunikazioa izanda zuzenduko dena, kuadrilla bakoitzaren ezaugarri bereizgarriak kontuan hartuta, eta itunduta erabakiko da nola heldu lehentasunezko jarduera-ildoei, zer ikuspegirekin eta birtartekorekin, Arabako gizartea integratzaileagoa eta kohesionatuagoa izatea lortzeko eragingarriak diren ekintza espezifikoak diseinatzeko.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

**ikus
pegi** Immigrazioaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de Inmigración

